

## Durangaldea

## konfinamenduan

Koronabirusari aurre egiteko neurri zorrotzak ezarri zirenetik, Durangaldeko kaleak hutsik daude. Aman-komunazgoak etxebakoentzako guné bilakatuko du Behargintzaren eraikina. Euskal Herrian telelana nagusi den egunotan, enpresa asko itxi egin dituzte. • 4



UNAI OLASO

## "Italia koronabirusaren unerik gogorrena bizitzen ari da"

**Italia** | Ane Irazabal kazetaria Erromatik dabil kontatzen koronabirusaren krisia. Krisi honetan, errefuxiatuak "azkenaren azkenak" izango direla dio. "Beti esan izan da Afrikatik ekartzen dituztela gaixotasunak. Ikusi dugu geuk eramaten ditugula haiengana", gaineratu du Irazabalek. • 2-3



GOIENA



**Ane Irazabal**  
**Elkorobarrutia**  
Kazetaria  
Arrasate | 1984

GOIENA

## “Txinak erakutsi du isolamenduak funtzionatzen duela, eta bakoitzaren ardurarekin ikusiko da zer gertatzen den”

Ane Irazabalek azaldu du Italia koronabirusaren momenturik gogorrena bizitzen ari dela. Kazetaria Erromatik dabil krisi honen jarraipena egiten

### ELKARRIZKETA • JONE GUENETXEA

**Ane Irazabal Elkorobarrutia kazetaria (Arrasate, 1984) Erromatik ari da kontatzen koronabirusaren krisia. Kazetariak azaldu du Italia koronabirusaren unerik gogorre-na bizitzen ari dela.**

### Momentu honetan, zein egoeratan zaudete Italian?

Herrialde guztia isolatuta dago. Ezin gara atera bizi garen herri-tik. Hiru baldintzapean bakarrik irten daiteke etxetik: lan arra-zoiengatik, janaria erosteko eta

osasun larrialdi batengatik. Kasu guztietan ziurtagiri bat behar da, poliziak galdetu ahal dizulako zergatik zauden kalean. Barne Ministerioak argitaratu du posible dela kalera paseatzera irtetea, baina pertsona bat familiako.

Ezin da irten ez taldeka ezta bikoteka ere. Herrialdea koronabirusaren unerik gogorrena bizitzen ari da. Ez gara iritsi kurbaren erpinera, eta hildakoen eta kutsatuen kopurua gorantz doa modu esponentzialean.

### Kazetari legez, izan duzu arazorik kalera irten eta lan egiteko?

Italiako Barne Ministerioak kazetari guztioi bidali digun dokumentu bat daukat. Autoziurtagiri bat da, eta horrekin lan egitera irten naiteke. Ezin naiz nire hiri-

 **Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com

**GAER**  **DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



**Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ**

tik irten, baina badut eskubidea hiriaren barruan lan egiteko.

### Zelan baloratzen duzu Italian herritarrek eta arduradun politikoek izandako erreakzioa bai krisiaren hasieran bai orain bizitzen ari zaren momentu kritiko honetan?

Hiru aste baino gehiago darrazmatzagu kontu honekin eta fase guztietatik pasatu gara. Lehenengo, desinformazioan oinarritutako alarmismo bat zabaldu zen eta horrek txinatarrekiko xenofobia zabaldu zuen. Gero, saiakera bat egon zen krisia txikitzeko, hein handi batean, ardura handia zegoelako krisiak edukiko zuen ondorio ekonomikoengatik. Hamaika udalerrri isolatu zituzten eta pentsatu zuten foku nagusi horiek isolatuta gai izango zirela krisiari aurre egiteko. Bizitza normala egiteko esan zuten, eta infekzioa gehiago zabaltzea ekarri zuen horrek. Baina, egunak

### Italian gure aurretik zoazte. Euskal Herrira begiratuta, hemengo egoera zelan ikusten duzu?

Bederatzi egun atzetik zoazte, baina neurriak guk baino arinago hartu dituzue. Mugimenduak murriztea, taberna eta jatetxeak ixtea... Gainera, Euskal Herrian oso gauza kurioso eta polita gertatu da. Jende askok bere kabuz erabaki du ixtea, agintariek esan aurretik, arduratsuk direlako. Hori Italian ez da gertatu. Gobernuak esan arte ez dute erabaki hori hartu. Grafikoak ikusita, kurba oso antzekoak dira, bai Italian baita hor ere. Txinak erakutsi du isolamenduak funtzionatzen duela eta bakoitzaren ardurarekin ikusiko da zer gertatzen den. Hor, hasieran, jende askok broman hartzen zuela nabaritu dut, baina jendeak geroago eta hurbilago ikusi duenean kontzientzia hartu du. Nik gurasoen eboluzioan ikusi dut. Kontuz ibiltzeko esaten nien Italiatik, eta alarmista bat nintzela uste zuten. Baina egunak pasatu ahala, konturatu dira.

### Beste herrialde batzuetan isolamenduarena zalantzan jartzen da. Erresuma Batuan, esate baterako.

Erresuma Batuan kutsadura kontrolatuaren estrategiak alarmak piztu ditu toki guztietan. Estrategia bat egon da Johnsonen aldetik ekonomia ez kaltetzeko. Ikusten da zein den bere lehentasuna, eta agian ez da adinekoen bizitzak salbatzea. Hori antropologo batek agian hobeto aztertu dezake, kultura katoliko batean edo gizarte protestante batean bizi zein eragin duen. Uste dut pisu katolikoa dugula guk, bizitza laikoa egin arren, eta horrek badu bere eragina: bizitzaren garrantzia... Darwinismo sozialean

“

**Euskal Herrian oso gauza kurioso eta polita gertatu da. Jende askok bere kabuz erabaki du ixtea”**

—

oinarritu da Johnson. Indartsuek bakarrik bizirik irauten dute. **Kazetaritzaren ikuspuntutik azterketa izaten ari da denontzat. Ari gara asmatzen gai honen inguruan informatzerakoan?**

Testuinguru berri batean gaude, arlo guztietan. Medikuentzat, agintarientzat eta baita kazetarientzat ere. Egunero aldatzen ari den testuinguru batera egokitzen eta erantzun bat ematen ari gara. Hasieran Italian zegoen senten-

zionalismoaren aldeko olatu hori desagertu egin da. Azken urteetan desagertuta egon den zerbitzu publikoa indarra hartzen ari da horrelako testuinguru batean.

**Lesbosen bizi den egoeraren inguruko jarraipena egiten duzu. Han ere koronabirus kasuak agertzen hasi dira. Lehendik ere gogorra zen egoera.**

“

**Egunak pasatu ahala, denak kontzientziatu dira, eta, ondorioz, herrialde osoa gelditu da”**

—

Errefuxiatuek ez badituzte gutxieneko zerbitzu minimoak jasotzen, janaririk, edateko urik... ez dizkiete inolako koronabirus probarik egingo. Egia da birusak

ez duela herriaren, arrazaren, kolorearen bereizketarik egiten. Birusari erantzuna emateko estrategia, berriz, arrazista izango da. Eta hori argi ikusiko dugu krisi hau errefuxiatuen kanpalekuean kudeatzerako orduan, eta ez bakarrik Lesbosen. Beraz, nahiz eta birusa oso demokratikoa izan, emango den erantzuna ez da demokratikoa izango, eta hor ere nabaritu dugu errefuxiatuenganako bazterkeria. Azkenaren azkenak izango dira. Beti esan izan da Afrikatik ekartzen dituztela gaixotasunak, Turkiatik datozen asilo eskatzaileek ekartzen dituztela birusak... Ikusi dugu geuk eramaten ditugula haiengana.

**Maila pertsonalean, zelan daramazu hau guztia?**

Jende guztiaren moduan. Nik lan arrazoiengatik baimena daukat kalera irteteko, eta lan egitera irteten naiz. Alde horretatik, aukera dut Erroma barruan mugitzeko. Bestalde, herritar guztien moduan, saiatzen naiz animatu-

ta egoten eta ondokoak zaintzen, telefonoz bada ere. Gure inguruko bizilagun asko emakume alar-gunak dira. Saiatzen gara beraien erosketak egiten.

**Italiatik harridurarekin ikusten ari zarete supermerkatuetan komune-kopaperaren erosketa masiboa.**

Hemen komuneko papera ez da

“

**Beti esan izan da Afrikatik gaixotasunak ekartzen dituztela. Ikusi dugu geuk eramaten ditugula haiengana.”**

—

amaitu. Gainera, hemen harrituta gaude, bidetean garbitzeko ohitura dagoelako. Hemen, lehenengo egunetan pasta agortu zen supermerkatuetan, etxean janaria prestatzeko errazena delako.

“

**Ez gara iritsi kurbaren erpinera, eta hildakoen eta kutsatuen kopurua gorantz doa modu esponenzialean”**

—

pasatu ahala, denak kontzientziatu dira, eta, ondorioz, herrialde osoa gelditu da. Bestalde, Errepublikako presidentearen aldetik deialdi bat egon da alderdi politiko guztiek su-eten moduko bat sinatzeko. Eztabaida politikoa eguneroko kontua da Italian. Polemika alde batera uzteko deialdia egin dute eta igarri egiten da. Matteo Salvini lider ultraeskuindarra normalean egunero egoten da polemika kapitalizatzeke nahian, eta egun hauetan inoiz baino isilago dago.

### Zein fasetan zaudete orain?

Baikortasun fasean gaude. Arratsaldetan balkoietatik musika entzuten da. Lortuko dugu eta horrelakoak entzuten dira. Ikusiko dugu zer gertatzen den hamabost egun baino gehiago egon behar dugu esaten badigute.

### Herritarrek kontzientzia hartzea prozesu bat izan da?

Kosta egin da, individualismoaren ondorioz alde batetik, baina baita jendea oso nahasita egon delako ere. Herrialde osoa isolatu arte, iparraldetik hegoaldera ihes egin duen jendea egon da. Horrela, kutsadura beste leku batzuetara eramanez ez zutelako isolamenduan egon nahi. Hala ere, uste dut kontzientzia-hartze kolektibo bat egon dela, ez dagoelako beste erremediorik.



**“MyGADE gradua aukeratu nuen, esperientzia Duala graduko lehen mailatik eskaintzen duelako”**



**Oier Pérez Caballero**  
(Durango, 19 urte)  
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, myGADE gradu Dualaren 2. maila ikasten ari da.

**Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?**  
Eskolako ikasketak Landako eskolan egin nituen, DBH ikasketak eta Babxilergoa Fray Juan de Zumarraga Institutuan. Betidanik tenisean aritu izan naiz.

**Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**  
Betidanik gustatu zaizkit zenbakiak, baina DBHko 4.mailan konturatu nintzen ekonomia egin nahi nuela. MyGADE gradua aukeratu nuen, esperientzia duala graduko lehenengo mailatik eskaintzen zuelako.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**  
Esperientzia izugarria izan da, nire ustez. Unibertsitatean irakasteko metodoa eta pertsona guztiekin duzun erlazioa asko hobetzen da Babxilergoarekin alderatuta. Esperientzia duala oso garrantzitsua izan da niretzat eguneroko lanpostuen bizitza nolako den jakiteko, teoriatik guztiz aldentzen delako.

**Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasketako metodologia?**  
Metodologia eraldatuta dago talde lana bultzatzeko eta, honen garrantziaz ohartzeko, hobekuntzak daude Babxilergo eta DBH metodologiarekin alderatuta.

**Unibertsitateak zer da gehien gus-tatzen zaizuna? Badago hobetzeko ezer?**  
Gauzak egiteko askatasuna nabar-

menduko nuke, eredu Dualarekin batera. Praktikak egiteko aukera izugarri garrantzitsua izan da niretzat. Beste alde batetik, campu-sarekin komunikatzeko garraioen hobekuntza bat egotea gustatuko litzaidake.

**Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?**  
Gaur egun Kooperera S.COOP-en praktiketan nabil kontabilitate departamentuan. Hasi nintzenetik egin dudana lana aldatuz joan da, baina betidanik egon naiz fakturak kontabilizatzen eta denden diru sarrerak kudeatzen.

**Zer nolako ekarpena egiten duzu eredu Dualak?**  
Ekarpen izugarria egin dit, lan giroko eguneroko bizitza erreala erakusten duelako. Behin praktikak hasita, konturatzen zara teoria ez datorrela guztiz bat eguneroko bizitzarekin.

**Atzerriko esperientziarik izan duzu edo izango duzu? Non eta nolako izan da?**  
myGADE graduan derrigorrezkoak dira atzerriko esperientziak. Atzerriko esperientzia hori laugarren mailan izango dut, baina oraindik ez dakit nora joango naizen.

**Etorikizunari buruz, zeintzuk dira zure asmoak?**  
Behin gradua amaituta, ez ditut ikasketak alde batera utziko; hala ere, uste dut behin amaituta lan mundurako prestatuta egongo naizela.

# Amankomunazgoak etxebakoentzako aldi baterako aterpetxe bilakatu du Behargintzaren eraikina, hauek babesteko asmoz

Kolektiborik ahulenen aldeko zenbait neurri hartzen hasi dira erakundeak; "Gutxienez" hamabost egun iraungo duen alerta egoerak kaleak hustu ditu



Durangoko Alde Zaharra domeka arratsaldean, hutsik.

## DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Alerta egoerak irauten duen bitartean, Behargintzaren eraikina etxebakoentzako gune bilakatuko da. Horretarako, gunea atondu dute, gauak zein egunak bertan igaroko dituztenentzat. 15 ohe, egongela, tapakiak, mikrouhin labeak, berogailua, janari-zerbitzua eta wifia eskainiko dituzte. Amankomunazgoa Gurutze Gorriagaz koordinatu da. Mireia Elkoroiribe Amankomunazgoko presidentek "guztiz beharrezkozat" jo du neurria kolektiborik ahulenei "erantzun egokia" emateko. Bestalde, Errota Ostatur

aterpetxean ere indartuko dituzte zerbitzuak.

Izan ere, herritar guztiengan izan du eragina koronabirusaren etorrerak. Gehiago edo gutxiago

### Martxoaren 15ean, Espainiako presidentek alarma egoerako neurri zehatzak iragarri zituen

kostata jendea etxean geratzen hasi zen, martxoaren 13an Iñigo

Urkullu lehendakariak alarma egoera ezarri eta etxean geratzeko "gomendioa" egin eta gero. Salbuespeneko egoerak ezohiko irudiak utzi ditu gure inguruetan. Asteburuko egun eguzkitsuekin jende askok kalera edo mendira irten zuen osteratxoa egitera. Beste batzuek etxeko balkoira irtenda konformatu behar izan zuten; eskolak itxita zeuden, eta parkeak jendez beterik; supermerkatuetan ilara izugarriak osatu ziren, eta kultur zein kirol agendak bertan behera geratu ziren. Zapatu gauetan, Pedro Sanchez Espainiako presidentek alarma

egoera ezarri zuen estatu osorako, "gutxienez, hamabost egunerako", eta domekako 08:00etatik aurrera konfinamendua ezarri zien he-

### Hasieran ezohiko irudiak utzi zituen alarma egoerak: eskolak hutsik eta zenbait terraza beteta

rritarrei, beste hainbat neurriren artean. "Beharrezkoak" diren erosketak egiteko eta lanera joateko baino ezin zen irten kalera.

## Kutsatu kopuruak, gora

Neurriak zorroztu arren, ez da nahikoa izan COVID-19aren zabal-kundea gelditzeko, eta, agintarien esanetan, okerreza heltzeko dago.

## Neurriak zorroztu arren, ez da lortu COVID-19aren zabalkundea gelditzea

"Epidemiak oraindino ez du goia jo", esan dute. Azken datuen arabera (martxoaren 18koak), Euskal Herrian 1.369 lagun gaitotu ditu gaitzak, eta 44 hil.

## Elorrioko Udalak Sorluzeko hilketa matxista gaitzetsi du; baita herritarrek ere

### ELORRIO • A.M.

Martxoaren 16ko goizaldean, Ertzaintzak 74 urteko emakume bat hilda topatu zuen Sorluzen (Gipuzkoa). Elorrioko Udalak ohar baten bitartez jakinarazi zuen emakumearen usteko hiltzailea Elorrioko Udaleko langilea zela. Udalak "gaitzespen irmoa" adierazi zuen, familiari doluminak helarazteaz gainera. Bestalde, mugimendu feministak protestara deitu zuen martxoaren 17rako. Koronabirusaren pandemiak eragindako ezohiko egoera dela-eta, ezohiko protestara deitu zuten: kazeroladara. Durangalde osoan ehunka herritarrek bat egin zuten protestagaz, eta euren leiho eta balkoietan gogor astindu zituzten eltze eta lapikoak zarata ateratzeko.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko martxoaren 20a  
18. urtea - 799. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## “Bezero batzuek launa kaxa parasetamol erosi gura izan zuten astelehenean, eta kaxa bana ematen hastea erabaki genuen”

Farmaziek ordu minimoetan zabaldu dezakete osasun larrialdiak iraun arte. Dena dela, askok ohiko ordutegian dihardute. Eibarko Elortza Botika farmazian lanez lepo dabilta

**DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI**  
Osasun larrialdia izendatu eta gero, farmazietan ere neurriak hartzen hasi dira. Uneoro aldatzen da egoera eta hartu beharreko neurriak, Jokin Elorzak azaldu duenez. "Agindutakoa beteta eta profesionalki heldu diogu egoera honi", esan du.

**Osasun larrialdiaren aurrean, zeintzuk neurri hartu dituzue?**

Itxitura moduko batzuk egin ditugu, bezeroak mostradoretik gutxienez metro batera egon daitezten, kontakturik ez izateko. Behintzat aurpegiaren aldea bata bestearengandik babesteko. Bezero bi baino ezin dira egon aldi berean farmazian, bakoitza mostradore batean; besteek ilaran itxaroten dute kalean. Eskularruak erabiltzen

“**Bezero bi baino ezin dira egon farmazian, bakoitza mostradore batean. Besteek kalean itxaron behar dute**”

ditugu, eta aho-maskaren zain gaudela, Farmazialarien Elkargoak noiz banatuko. Bestalde, farmaziako altzari batzuk mugitu egin ditugu, hori ere segurtasun neurri modura. **Botika edo produktu guztiak daude eskura? Alde horretatik, ez duzu neurri berezirik hartu?**

Bezero batzuk zenbait produktu pilatzen ahalegintzen dira. Batzuek launa kaxa parasetamol erosi gura izan zuten, eta kaxa bana ematen hastea erabaki genuen. Uste dugu nahikoa dela 40 pilulako kaxa bategaz. Dena dela, ez dugu agindurik ezer ez emateko, baina, egia esan,

“**Itxitura moduko batzuk egin ditugu, bezeroak mostradoretik gutxienez metro batera egon daitezten**”

hidroalkoholikoak, aho-maskarak, eskularruak, alkoholak, termometroak eta abar agortuta daude. Hala ere, badaude bestelako alternatibak, badaude produktuak, eta bagabiltza horiek bezeroei ematen.

**Ibuprofenoa ez hartzeko gomendioak izango zuen eragina.**

Bai. Dena dela, argitu dute ez dagoela frogatuta ibuprofenoa hartzeak eraginik baduen koronabirusean. **Zein gomendio emango zenieke herritarrei?**

Gomendio ofizialak betetzea: etxetik ez irtetea, ezinbesteko gauzetara-

ko baino ez bada; eskuak garbitzea, sarri, eta farmaziara beharrezkoa denerako baino ez etortzea. Bestalde, badaude neguan defentsak indartzeko edo katarroak ekiditeko produktuak, naturalak. Gomendagarriak beti. Ez dute koronabirusa ekidingo, baina indar gehiago izango dugu aurre egiteko.



**Oraindik ez dituzu Anbotoko albisteak whatsapppe z jasotzen?**

**Bidali ALTA 688 635 041 telefono zenbakira**

**Batu Anbotoko Whatsapp taldera!**

**anboto**

The advertisement features a smartphone displaying a WhatsApp chat interface with messages from 'Anboto Whatsapp'. The messages include news about a strike in Durangaldea and information about a WhatsApp group. A green WhatsApp logo is prominently displayed on a red background.



**Jose Luis Balentziaga**  
lurretako familia medikua

## “Hiru-lau hileren barruan herritarren %80 inguruk izango dute kontaktua birusagaz”

Koronabirusak eragindako egoeraren aurrean “zentzuz eta erantzukizunez” jokatzera deitu du Jose Luis Balentziaga medikuak

**DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO**

**Jose Luis Balentziaga lurretako anbulatorioko familiako medikua da. Koronabirusa “gure artean” dagoela dio, eta hurrengo hileetan herritarren %80k izango dutela kontaktua birusagaz. Urte askoko ibilbidea duen arren, aurretik sekula ere ez ei du gaur egun bizi dugun antzeko egoerarik ezagutu, eta luzerako joango dela uste du.**

**Zelan zabiltzate egoera kudeatzen?**

Egoera oso aldakorra da eta azken aldian, zer neurri hartu diren jakinda eta koronabirusa zelan hedatzen joan den ikusita, horretara moldatu behar izan dugu. Premiazko zerbaiterako ez bada, etxean geratu behar dugu, horixe da orain mezu nagusia. Eta norbaitek gugaz hartu-emanetan ipini gura badu, telefonoz deitu dezala. Pentsatu behar dugu alarma egoeran gaudela, koronabirusa gure artean dagoela eta bakoitza arduratu behar

dela hartu beharreko neurriak hartzeko. Eztula egiten denean, besora egin eta antzerakoak. Zentzuz eta erantzukizunez jokatu behar dugu norbere esku dauden neurriekin.

**Deitzen duten herritarrek zer duda nagusi dituzte?**

Pentsatu behar dugu eztula, sukarra edo antzekorik badugu kutsatuta egon gaitezkeela. Lehen,

“

**Pentsatu behar dugu sukarra edo eztula badugu kutsatuta egon gaitezkeela”**

■

pertsona bat kutsatuta egon zitekeen susmoa zegoenean, proba egiten zitzaien, ziur jakiteko. Baina orain ez du zentzurik hori

egiteak; edozein pertsona da kutsatuta egoteko hautagaia. Ospitalean daudenei, larritasun bat dutenei eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten lagunei egiten zaie proba hori, baina gainerako denentzat mezua argia da: etxean gelditu, ez dago besterik. Egun batzuk igarota pertsona batek txarto jarraitzen badu, beste bide bat hartu daiteke. Osasun publikora, epidemiologiara, deitu daiteke, eta haiek erabakitzen dute zelan jokatu.

**Badago gomendio zehatzik haurdun dauden emakumeentzat eta adineko pertsonentzat?**

Haurdun dauden emakumeentzat ez dago gomendio zehatzik. Ez dago informazio nahikorik jakiteko birusak zer eragin izan dezakeen kasu horietan. Seguru ezin dugu ezer esan, baina pentsatu daiteke hiru-lau bat hileren barruan herritarren %80 inguruk izango dutela kontaktua birusagaz, modu batera edo bestera.

Gehienek ez dute ezer askorik igarriko. Gainerako %20ak arrisku handiagoa du, adinagatik edo bestelako gaixotasunengatik.

“

**“Erantzukizunez jokatu behar dugu norbere esku dauden neurriekin”**

■

Pertsona horiek zaindu behar ditugu eta, batez ere, horiengan ipini behar dugu arreta.

**Ospitaleak ez kolapsatzea garrantzitsua da.**

Bai, jakina. Gainera, egoera honetan gaixo bakoitza gela batean egon behar da. Bakoitza bere gelan. Horretarako, espazioa behar da. Italian ikusi dugu ospitale

batzuk hustu egin dituztela beste jende bati tokia egiteko.

**Egoera berria da denentzat.**

Bai. Azkenean honek pelikula bat ematen du. Hau da, aurretik ez dugu horrelakorik bizi izan. Nik 63 urte ditut eta sekula ere ez dut honelako egoerarik ikusi hemen.

**Egoera orain arte zelan garatu den ikusita, luzerako doan kontua da?**

Luzerako joango da, bai. Ikusita, batez ere, zelan joan den Txinan eta Italian. Herrialde horietan koronabirusa zelan garatu den ikusi dugu, geroago eta informazio gehiago dugu horri buruz, eta horregaz hemengo ideia bat atera dezakegu. Beste bi edo hiru hilabete beharko ditugu, hori seguru.

**Besterik gehitu gura duzu?**

Bakarrik gogoratu etxe barruan gaudenean neurriak hartu behar direla eta bikotekideagaz, umeekin eta besteekin gaudenean eztula egiterakoan besora egin behar dela. Erne ibili behar dugu.



# Gremioen gida

anboto

 **Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**

  
**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

**ALDEKOA-OTALORA**  
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA  
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiainre, 8 IURRETA  
946 202 768

Arzubio 10 B Industrialdea, 13-14 pabellioak ABADIÑO  
944 071 791 - 492 852 779

 **Zurgintza**

  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberitzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com

 **Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



# “Lanerako behar gaituztela eta ez gaixotzeko esaten digute, kontuz ibiltzeko”

Irati Marzana Cosladako (Madril) ospitalean dabil lanean, erizain; "kezkatuta" dago ipini dizkieten neurri berriengatik



**Irati Marzana**  
**Zenitagoia**  
Erizaina Madrilgo Del  
Henares Ospitalean  
**Elorrio | 1993**

lekualdatzen genituen. Baina hemendik aurrera bertan artatuko ditugu, nahiz eta gure solairua egokiena izan ez koronabirusa duten gaixoentzat. Solairu erdi egokitu dugu Covid19 duten gaixoentzat.

## Zergatik diozu hori?

Gure solairuan barne medikuntzako gaixok ditugulako, hau da, orokorrean jende nagusi pilo bat.

## Gaixok eta euren familiek zelan hartu dute solairua egokitzea?

Gaixok badakite zer gertatzen dabilen, eta familiek ulertzen dute gure egoera. Gaixoen senideek lasai ibiltzeko esaten digute denera heldu ezinik ikusten gaituzten momentuetan, ulertzen dutela zein egoeratan gauden. Hala ere, aho-maskarak eskatzen dizkigute, as-

“**Osasun arloko langileok oso arduratuta gaude ipini berri dizkiguten neurri berriengatik**”

kok baita kalerako ere. Guk, baina, debekatuta dugu ematea.

## Zuei lanean neurriak zorrotz dizki- zue?

Azken aldian neurriak aldatzen dabilta, baina ez dakigu aldatu diren baliabiderik ez dagoelako edo benetan ziurtatuta dagoelako neurri berri hauekin ere babestuta gaudela. Kontua da, orain aho-maskara ipinita joan behar dugula gaixo guztiengana, badaezpada, gu kutsatuta egonez gero eurak ez kutsatzeko. Koronabirusa izan dezaketen gaixoen goazenean, eta esaterako aerosolik ipini behar ez badiegu, aho-maskara kirurgiko batez eta kirofanoko bata batez joateko esaten digute, horregaz nahikoa dela. Baina komunikabideetan ikusi dugu koronabirusa duen gaixo batengana bagoaz, betaurrekoak, kaskoa eta aho-maskara bereziak ipini behar direla. Beraz, osasun arloko langileok oso arduratuta gaude ipini berri dizkiguten neurri hauengatik.

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

**Orain urte bi eta erditik hona, Irati Marzana elorriarra Madrilen dabil lanean, erizain. Azkenaldian Cosladako ospitale publikoan.**

**Espainiar estatuan, Madrilen dago koronabirus kasurik gehien, eta zu bertan zabilta lanean. Zelako egunak dira hauek erizain batentzat?**

Pertsonalki, orain egun batzuk baino lasaitxoago nago. Orain arte

arduratuta egon naiz ingurukoek egiten zutenagaz, baina dagoeneko ematen du jendea kontziente dela bizi dugun egoeragaz; beraz, lasaiago nago. Hasieran, izugarri kostatu zitzaidan inguruko jendea konbentzitzea etxetik ez irteteko. Egia esan, neurri zorrotz hauek egun batetik bestera ipini zizkiguten, eta jendeari gax egin zitzaion ulertzea ezin genuela etxetik irten. Niri, esaterako, lagunek hainbat bi-

der esan zidaten etxeren batean edo bestean elkartzeko, eta behin eta berriro esan behar izan nien hori ez zela egin behar.

Lanean, oster, presio handia izan dugu eta sarritan gax egin zait informazioa ulertzea, momentu askotan informazio kontrajarriak jaso ditugu eta. Lanerako behar gaituztela eta kontuz ibiltzeko eta ez gaixotzeko esaten digute, baina, gero, jendeagaz momentu oro

kontaktuan gaudenez gaixotzeko arrisku handia dugula diote.

## Izan duzu hartu-eman zuzenik koronabirusa duen gaixoren batez?

Ni lanean nabilen solairuan ez dugu hartu paziente positibo ofizialik, baina izan ditugu gaixok bertara ekarri dituztenak sintomaren batez eta azkenean isolatu egin behar izan ditugunak positibo eman dutelako. Orain arte, positibo ematen zuten horiek zerbitzu berezietara

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

[www.medicinaesteticadurango.com](http://www.medicinaesteticadurango.com)

### Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO**

**Tel.: 946 810 387**



pablo zubizarreta  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D - 48200 Durango / [pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)

Tel.: 946 550 049 / 695 784 963



# “Armada guztia kaletik dabil. Ezin da hoteletik irten botikak erosteko ez bada”

Euskal Herritik Perura bidaiari joandako 26 turista Limako hotel batean daude konfinatuta. Talde horretan Juanpe Milikua abadiñarra dago



Ezkerrean, Jose Manuel La Hidalga, Matienan enpresa bat duen eibartarra. Eskuman, Juanpe Milikua abadiñarra. Limako hotel batean daude.

PERU • JONE GUENETXEA

**Juanpe Milikua abadiñarra Euskal Herritik Perura bidaiari joan zen talde batez, eta orain etxera bueltatu ezinik daude. ANBOTOren galderei telefonoz erantzun die.**

**Zelan zaudete, Juanpe?**

Ondo konpontzen ari gara. Esan digutenez, hamabost bat egunean egon beharko dugu hemen. Etxekoekin berba egin dut eta esan didate lasai egoteko, Euskal Herrian ere kontua nahiko txarto dagoela.

**Bidaia bat egiten ari zineten?**

Orain hamahiru egun irten genuen. Ez genuen arazorik izan ez Madriletik irteteko ezta Perun sartzeko ere. Dena oso ondo joan da. Baina egun batetik bestera dena aldatu zen.

**Noiz esan zizueten itzuliko zinetela?**

Orain bost egun esan ziguten es-traditatu egingo gintuztela. Machu Pichu ikusi genuenean esan ziguten mugak zarratuko zituztela. Bidaia-agentziakoekin batera itzultzea erabaki genuen, baina ez da posible izan.

**Hasieran, itzultzeko aukera bat zegoela pentsatu zenuten.**

Aukera eman ziguten Cuzcotik Boliviara autobusean joateko. 500 kilometro autobusean egin eta Rio de Janeiro-Madril-Bilbo hegaldiak hartzea zen asmoa. Autobusean sartu eta ordu betera esan ziguten ezin genuela jarraitu, Boliviako muga itxita zegoela. Handik hotele-tera itzuli ginen. Berritro mailetak hartu eta Cuzcotik Limara etorri ginen. Oraintxe bertan Liman jarraitzen dugu, hotelean konfinatuta.

**Zein da egoera Liman?**

Armada eta polizia guztia kalean dago. Ezin gara hoteletik irten botikaren bat erosteko ez bada.

**Noiz bueltatu ahalko zarete?**

Esan digute hamabost egunean egon beharko dugula hemen. Ni oso lasai nago. Ondo gaude.

# “Ile-apaindegietako langileok oso nahastuta gaude”

Durangaldeko ile-apaindegiek atek itxi dituzte, Espainiako Gobernuak "beharrezkotzat" izendatu arren hasieran

DURANGALDEA • I.G.

**Ile-apaindegiek ez dute atek itxi tekniko agindurik jaso alerta egoera ezarrita dagoen artean. Hala ere, Durangaldeko ile-apaindegi batzuek atek ixtea erabaki dute. Horien artean dago Jon Sopelana, lunik ile-apaindegiaren jabea.**

**Zergaitik erabaki duzue ixtea?**

Inkoherentzia ugari aurkitu

ditugu kontu honetan. Ezin dugu gure lana egin segurtasun distantziak mantenduta. Hau guztia propaganda politikoa dela iruditzen zait, euren tenis partidaren erdian. Ez dut eza gutzen zabalik mantentzeko intentzioa zuen ile-apaindegi-tako inor.

**Arduratuta zaudete ile-apaindegiak zabalik egoteko aukera baimendu zutelako?**

Hasieran sekulako akatsa egin zuten, eta berandu ohartu dira. Beharrezkoak ei ginela esaten zuten, baina gure lanean ezin dugu distantziarik mantendu.

**Ohiko bezeroak ipini dira zugaz hartu-emanetan?**

Kaletik galdetu izan didate, eta lagun batzuek ere deitu didate, galdetuz ea egia ote zen eta abar. Egongo da ile-apaindegira bertara deituko zuen norbait, baina oraingoz ez dago inor bertan.

**Sektoreko enpresariak babesik barik sentitzen zarete?**

Bai, eta kezkatuta nago, noski. Batez ere, ezin zarelako fidatu Gobernuan edo goi karguetan daudenekin. Oraintxe bertan, enpresari eta autonomo lez, ahul sentitzen gara. Eta ile-apaindegi-tako langileok oso nahastuta gaude.



**Jon Sopelana Amategi**  
Durangoko  
lunik ile-apaindegi-  
jabea  
Durango | 1978

R.P.S. 214/06  
A. Urreta podólogo

**OINETAKO PATOLOGIAK**  
**NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK**  
**OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**clínicadental hortzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA - KIRURGIA  
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI  
HORTZ-ESTETIKA • HORTZ-ESKANERRA

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

R.P.S. 145-13

# KORONABIRUSA

## ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA BABESTEKO?

**1 SARRITAN  
GARBITU ESQUAK  
URAREKIN ETA  
XABOIAREKIN**



**2 EZTUL EDO DOMINISTIKU  
EGITEAN, AHOA ESTALKI  
BESAURREAREKIN EDO  
MUKIZAPI BATEKIN**



**3 BOTA ZAPIA BEREHALA  
ETA GARBITU ESQUAK**

ALKOHOL-OINARRIA DUEN ESQUETAKO  
DESINFEMATZAILE BATEKIN EDO UR ETA  
XABOIAREKIN



**4 EZ UKITU  
BEGIAK,  
SUDURRA  
ETA AHOA**



**5**

**ARNAS-SINTOMAREN BAT IZANEZ GERO  
ETA ARRISKU-EREMU BATERA BIDAIATU  
BADUZU, ETXEAN GERATU ETA DEITU**



**900 20 30 50**

# Hemen *eta* online

iragarki  
laburrak  
.eus



# Durungaldean elkartasun sare handia sortu da premiarik larriena duten pertsoneri laguntzeko

Eskualdeko hainbat boluntario prest daude oinarrizko elikagaiak eta botikak beharrezkoa den etxeetara eramateko



**DURANGALDEA** • E.H. / J.D.

Durungaldeko herritarren elkartasuna berehala aktibatu da. Zaldibarko Gazte Taldea izan zen lehenengo pausoa ematen. Joan zen bariku gauean, jada, antolatuta zuten elkartasun taldea. Adinekoei edo etxetik irten ezin dutenei oinarrizko erosketak egiteko zerbitzua eta zaintza zerbitzua eskaini zizkieten. 660 341 642 telefonora deituta egin daitezke eskariak.

## Zerbitzua herriko

Abadiñoko gazte talde batek telefono zenbaki bi eman ditu: 655 712 433 eta 662 586 190. Udalak ere zenbaki bi eman ditu: 94 466 94 30 eta 688 679 414. Berrizko hainbat elkarte 685 752 311 telefono zenbakian ari dira eskariak jasotzen. Durangoko Udalak herriko beste hainbat elkartez ekin dio auzokako elkartasun sareari. Erosketa eskararak 638 102 424 telefono zenbakian edo [durangoauzolana@gmail.com](mailto:durangoauzolana@gmail.com) helbidean hartuko dira. Elorri

udaltzaingoaren bulegora deitu beharko da: 946820218. Iurretako herritarrek ere osatu dute zaintza sarea. Hainbat telefono daude. Astelehenetik barikura, 679 237 129 eta 644 306 355 (goizetan) 617 144 737 eta 618 683 087 (arratsaldetan). Zapatuan eta domekan, 679 237 129 / 644 306 355. Mañarian 94 681 89 98 edo 654 653 176 telefonoetara deitu behar da. Otxandion 648 023 531 telefonora. Zornotzan, boluntario

“  
**Zaldibarko Gazte Taldea izan zen lehenengo. Joan zen barikuan, jada, antolatuta zuten elkartasun taldea**

talde bat 641 873 116 telefonoan ari da antolatzen. Baita [elkartasuna.zornotza@gmail.com](mailto:elkartasuna.zornotza@gmail.com) helbidean ere. Udala eta Gurutze Gorria koordinatzen ari dira. [volutariadobizkaia@cruzroja.es](mailto:volutariadobizkaia@cruzroja.es) helbidean ari dira boluntarioak bilatzen. Amankomunazgoan ere oinarrizko zerbitzuak betetzeko protokoloa martxan ipini dute. Gurutze Gorriagaz eta Foru Aldundiagaz ari dira boluntario sarea sortzen, [bizkaia@bizkaia.eus](mailto:bizkaia@bizkaia.eus) helbidean eta 94 416 15 11 telefonoan.

## “Medikua naiz eta atoan joango nintzateke lanera; baina ezin dut, sintomak ditut”

Durungaldeko bikote bat etxean dago berrogeialdia egiten; bietariko bat medikua da

**DURANGALDEA** • EKAITZ HERRERA

### Zer moduz zaude?

Hobetzen. Eztulagaz, sukarragaz eta flemekin nabil azken egunotan. Urgentzietan tratamendu bat ipini zidaten eta harrezkero hobetzen nabil. Ondo nago.

**Osasun zerbitzuek ez dizute baiztatu gaixotasuna duzula, baina, badaezpada, neurriak hartu dituzu.**

Medikuntza arloan lan egiten dut; beraz, lanean, jende askogaz dut kontaktua. Horrez gainera, pertsona soziala ere banaiz. Beharrezkoa da isolamendua.

**Isolamenduan egonda, zelan egiten zaio aurre egunerokotasunari? Elikagaien hornidurari, esaterako?**

Nik sintomak ditut, baina nire bikotekideak ez. Elikagaien bat

beharko bagenu, bikotekideak irten beharko luke. Dena dela, etxean baditugu elikagaiak bolada baterako. Bestalde, eskuak garbitzea da hartu behar dugun neurririk inportanteena. Askok eskularruak erabiltzen dituzte, baina horrek ez du esan gura arriskurik ez dagoenik. Kutsatuta dagoen zerbait eskularruekin ikutzen badugu eta

ondoren eskularru hori aurpegira eroaten badugu, berdin-berdin kutsatuko gara. Eskularruak ere garbitu behar dira.

**Zein neurri hartu behar ditugu etxean egoterakoan eta kalera joaterakoan?**

Etxean egon behar dugu denok, eta kito. Ahalik eta gutxien joan behar da supermerkatu. Eta erosi beharrezkoa dena bakarrik. Txakurra aterako behar badugu, berdin. Ahalik eta denborarik gutxien egingo dugu kalean. Urgentzietara ez joan. Sintomarik balego, deitu telefonoz.

**Medikua zara, baina dituzun sintomak direla-eta ezin duzu lanik egin.**

Lanera joateko gogoia dut. Medikua naiz, oraintxe bertan joango nin-

tzateke lanera, atoan, baina ezin dut. Sintomak ditut eta herritar gehiago kutsatu ditzaket. Etxean

“  
**Etxean egon behar dugu denok, eta kito. Ahalik eta gutxien joan behar da supermerkatu**

MEDIKUA

gelditu behar dugu. Ez dago besterik. Horrek ahalbidetuko du osasun zerbitzuek modurik eraginkorrenean lan egitea.

CERAMICAS  
**MACOBER**

ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 [www.macober.com](http://www.macober.com)

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda [info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)

#salduenak

1# MIÑAN Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susar)

2# AITAREN ETXEA KARMELE JAIO (Elkar)

3# OSERA KARRIONANDIA AIREA EZ DA DEBALDE Joseba Sarrionandia (Pamiela)

4# BASA Miren Amuriza (Elkar)

5# ITURRIA Unai Elorriaga (Susar)

# Hasierako egunetan irudi kaotikoak ikusten ziren arren, orain herritarren ardura nagusitu da denda eta supermerkatuetan

Saltoki handietan ilara luzeak sortu ziren hasieran; denda txikietan salmentak apur bat igo arren, patxada da nagusi

## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Konfinamenduak saltokietan utzi du ezohiko beste irudietariko bat. Supermerkatu handietako apalak hutsik ikusten ziren lehenengo egunetan. Kontserbak, ortuariak, higienerari loturiko produktiak eta abar falta ziren. Baina kaos irudi horiek joan ziren, eta azken egunotan patxadak hartu du tokia. Herritarrek ulertu dute egoeraren larritasuna. Ulertu dute patxadaz eta arduraz jokatzeko delat lehentasuna. Horregaitik, Durangaldeko elikagaien saltoki ia denetan igarri dira babes neurriak. Bezeroek ilarak sortu dituzte dendan atarrietan. Gutxi gorabehera metro eta erdiko distantzia mantendu dute bataren eta bestearen artean. Abadiñoko Trañaetxoste kaleak, adibidez, irudi hori eman du asteon. Okindegi, urdaitegi eta barazki-denda bana dago kalearen espaloi berean, eta herritarrek zorrotz betetzen zituzten babes neurriak. Baita dendariak eurek ere. Lorenzo Santiago Igluzeneko dendaren jabea da. Kon-

tserbak, txerrikiak eta bakailaoa saltzen dute nagusiki. "Dendara sartzen diren herritarrei eskatzen diegu haien artean metro eta erdiko distantzia mantendu dezaten. Eskularruekin gabiltza lanean, eta ordainketa bat egiten dugun aldiro, kobratzeko makina etengabe garbitzen dugu, kutsatzeko

**"Dendara sartzen direnei eskatzen diegu haien artean metro eta erdiko distantzia mantentzeko"**

arriskuari aurre egiteko", adierazi du Santiagok. Bere dendan ez da bezeroen ezinegon gehiegi nabaritu. "Normalean baino zerbait gehiago saltzen ari gara, baina ez nuke esango aparteko kopurua denik. Baina, egia esan, ohi baino kontserba gehiago saltzen ari garela igarri dugu", esan du. Elikagai dendak dira zabalik egoteko baimena duten denda bakanetarikoak.



Durangoko supermerkatu honetan bezeroak metro eta erdiko distantzia mantendu dute.

# Gora beherak



## Zertan ari da Marilyn Monroe igogailu batean?

Martxoaren 20tik aurrera 'Gorabeherak' websaila 'Ttap' aldizkari berrituan ikusgai!

**ttap**  
Irakurri, ukitu,  
ikus, entzun.

**DOAN**  
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu  
astero zure mugikor edo tabletan.  
Hemendik ere deskarga dezakezu: [ttap.eus](http://ttap.eus)

**DESKARGATU**  
Play Store-n

**DESKARGATU**  
APP Store-n



Instalatu orain!

# Hau hotza!

Pelloziriren lagunak jantzi mordo bat jarriko du soinean, kalera ateratzeko. Zer da justuki, jantziko duena? Aukeratu dituen jantziak eta osagarriak biribildu itzazu, ondoko orrialdean ageri den gisan agertu dadin.

## otsaileko Sudokua

Osa ezazu sudokua, OTSAIL hitza osatzen duten hizkiak (O, T, S, A, I eta L) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

L	O	T	S	
T	I	O	A	L
T		L	S	
A	S	L	I	O
I	L	S	O	A
O	A	I	T	



## itzala

Zein da gure rock and roll zalearen itzal zuzena?



## Hamaika

...Bai, arrazoi duzue. Eskolako bazkaria ez da beti gustukoena izaten. Alde ederrekoak izaten dira amatxiren kroketak! Baina ahaztu hori, eta bila itzazu bi irudi hauen artean dauden hamaika ezberdintasunak.




Badakizu  
zer dioen esaera zaharrak?

Otsaila bero, Negua gero

## Graffiti

Imajina  
ezazu  
ondoko  
hau zure  
eskolako  
pareta  
dela. Egin  
ezazu  
graffiti  
lotsagabe  
samar  
bat. Edo  
nahiago  
baduzu,  
aldarrikatu  
ezazu  
zerbait,  
idatziz.





# LAGUNTZA SAREAK DURANGALDEAN BEHARRIZANA DUTENENTZAT



## ABADIÑO

Abadiñoako gazteen boluntario sarea:

**655 712 433** eta **662 586 190**

10:00etatik 14:00etara hartuko dituzte eskariak

Boluntario sarean izena emateko:

**685 709 347**

Abadiñoako Udalaren laguntza sarearen telefono zenbakiak:

**94 466 94 30** eta **688 679 414**

## ATXONDO

Boluntario aritu gura dutenek izena emateko:

**608 321 901** eta **685 713 187**

## BERRIZ

Oinarrizko erosketak egiteko zailtasunak dituztenentzako

telefono zenbakia: **685 752 311**

## DURANGO

Boluntario taldeak auzoka antolatu dituzte:

**638 102 424**

[durangoauzolana@gmail.com](mailto:durangoauzolana@gmail.com)

## ELORRIO

Laguntza behar duten pertsonak Elorrioko Udaltzainen bulegora edo **946 820 218** telefono zenbakira deitu, 12:00ak baino lehen

## IURRETA

Laguntza behar duten herritarrentzako telefono zenbakiak:

### ASTELEHENETIK - BARIKURA

10:00 -14:00: **679 237 129 / 644 306 355**

16:00 - 20:00: **617 144 737 / 618 683 087**

### ZAPATU-DOMEKETAN

10:00 - 14:00: **679 237 129 / 644 306 355**

Herritarren sarean boluntario izateko: **666 101 373**

## MAÑARIA

Beharrizana dutenentzako telefono zenbakiak:

**94 681 89 98 / 654 653 176**

## OTXANDIO

Otxandioko elkartasun sarearen telefono zenbakia

beharrizana dutenentzatz zein boluntario izan gura

dutenentzatz: **648 023 531**

## ZALDIBAR

Zaldibarko gazteen telefono zenbakia:

**660 341 642.**

## ZORNOTZA

Zornotzako Udalaren eta Gurutze Gorriaren sarea:

Boluntario izateko: [voluntariadobizkaia@cruzroja.es](mailto:voluntariadobizkaia@cruzroja.es) edo

Herritarren Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bidez

Zornotzako gazte taldearen laguntza sarea:

[elkartasuna.zornotza@gmail.com](mailto:elkartasuna.zornotza@gmail.com)

**641 873 166**